

👁️👁️ Irakurri testua behar dituzun aldi guztietan.

MUSUXURI KATUA



Gaua da: Hiria dirdirka dago: denda guztietako argiak dirdirka; etxe guztietako argiak dirdirka...

Teilatu batean hiru katu daude, ikuskizun zoragarriari begira.

Katu batek Fifi du izena eta hauxe dio:

-Niri argi urdinak gustatzen zaizkit gehien.

Beste katuak Lulu du izena eta hauxe dio:

-Hango argi gorriak gustatzen zaizkit niri. Piztu-itzali ari diren haiek.

Hirugarren katuak Musuzuri du izena:

-Nik Ilargiaren argia dut gogokoen.

Lulu eta Fifi iseka hasi zaizkio.

-Tira, tira! Itsusi-itsusia da Ilargiaren argia!

Bat-batean, hiriko argi guztiak itzali dira. Matxuraren bat gertatu da.

Han goian, zeruan, hodeiak aurretik kendu eta ezkututik Ilargia agertu da.

Ilargiaren argia hiri gainean pausatu da; teilatuko hiru katuen gainean; putzuko uraren gainean...

Musuzuri katuak irribarre egin eta zera galdetu die:

-Zein da argirik ederrena?

Fifi eta Lulu kexu dira. Ez zaie gustatzen Musuzurik arrazoia izatea.

GALDERAK

1. Non zeuden hiru katuak argiei begira?

Mendi tontorrean.

Teilatu batean.

Etxeko leihoan.

2. Aukeratu hiru katuen izenak.

Lili	Fofo	Fifi
Musuzuri	Lulu	Lolo

3. Idatzi esaldi bakoitzari dagokion katuaren izena.

_____ri argi gorriak gustatzen zaizkio.

_____ri Ilargiaren argia gustatzen zaio.

_____ri argi urdinak gustatzen zaizkio.

4. Zergatik itzali ziren hiriko argiak?

Ilargiaren argiak bakarrik ikusi nahi
zuelako Musuzurik.

Matxura gertatu zelako.

Luluk eta Fifik iseka egin ziotelako
Musuzuriri.

5. Zergatik zirek kexu Fifi eta Lulu?

Ez zutelako nahi ilunpean egotea.

Ez zitzaielako gustatzen ilargiaren
argia ikustea.

Ez zitzaielako gustatzen Musuzurik
arrazoia izatea.